

SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak 30-60 arteko emakume eta gizonezkoak izango dira batez ere, ekonomikoki independenteak direlako. Beraien buruei garrantzia ematen dietenak: Zoriontsu bizi nahi dutenak fisikoki eta psikologikoki ondo sentituta.

Hasiera batean, bezero gehienak gertukoak izango dira (Euskal Herrikoak). Etorkizunean, agian, ospea hartzen dugun neurrian, Espainiako beste bezero batzuk ere izango ditugu.

Gure bezeroak, erdi-mailan eta goi-mailaren artean egongo dira ekonomikoki. Egia da, aukeraketa desberdinak eta eskaintza desberdinak egongo direla baina, gure bezeroen arazoan irtenbidea ez da egun batetik bestera desagertuko eta normalean prozesu luzeak izango direnez ekonomikoki arazoak eduki gaitzke beharrezko tratamendua burutzeko. Hala ere, eskeintza batzuk egingo ditugu eskuragarriago egiteko.